

2007ko urriaren 9an, ASTEARTEA, arratsaldeko ZORTZITAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen diren gaiak aztertzeko.

### EGUNEKO AZTERGAIAK.

- 1.-2.007KO ABUZTUAREN 7 ETA 9KO AKTEN ONARPENAK, BIDEZKOA BADA.
- 2.- ZENBAIT DEKRETUEN BERRI EMATEA.
- 3.- 1/2007 ZENBAKIA DARAMAN KREDITU ALDAKETA TRANSFERENTZIEN MODALITATEAN ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.
- 4.- HERRIKO LURSAILA SALTZEKO LEHIAKETARA AURKEZTURIKO PROPOSAMENEN ADJUDIKAZIOA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.
- 5.- LARDIKO FRONTOIA UDAL INBENTARIOAN SARTZEKO PROPOSAMENAREN AZTERKETA.
- 6.- 2.000KO MAIATZAREN 30EAN EGINDAKO UDALBATZAN ONARTURIKO ZABOR KONTENEDOREEN MANTENIMENTURAKO KONTRATUAREN PROPOSAMENAREN ETETZEA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.
- 7.- ESKOLAKO 21 AGENDARAKO LAGUNTZA TEKNIKOAREN KONTRATAZIOA, BIDEZKOA BADA.
- 8.- ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA
- 9.- ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.
- 10.- ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.
- 11.-GALDE ERANTZUNAK.

Aduna, 2007ko urriak 4.

ALKATEA.

## **2.007KO URRIAK 9.**

### **OHIKO PLENOA.**

Bertaratuak:

**ALKATEA  
ZINEGOTZIAK:  
Bertaratuak:**

Arantza Aburuza Alkorta.

Jose Antonio Irazu Mendizabal.  
Miren Aburuza Alkorta.  
Josu Amilibia Alsua.  
Iñaki Aristeta Gurrutxaga.  
Iker Iturrioz Lekuona.  
Ainara Iturrioz Lekuona.

**Bertaratu gabea:**

Iñor ez.

**IDAZKARIA:**

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta zazpiko urriaren bederatziko hogeita bat ordu eta hamabost minutu izanik, Adunako Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**LEHENENGO PUNTUA:  
2.007KO ABUZTUAREN 7 ETA 9KO AKTEN ONARPENAK, BIDEZKOA  
BADA.**

Alkateak 2007ko abuztuaren 7 eta 9ko akten berri ematen du eta aurrean aipaturiko zinegotziek aho batez onartzen dituzte.

**BIGARREN PUNTUA:  
ZENBAIT DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

Alkateak azken Plenoa egin zenetik ondoren aipatzen diren Dekretuak eman dituela jakinerazten du:

1.- Miguel Mari Arrospide Jaunari baimenik gabe egindako obrak legeztatzeko proiektu bat aurkezteko errekerimentua (85/2007 Alkatetza Ebazpena).

2.- Alkatea oporretan den bitartean, Alkateordearengan funtzioen delegazioa (86/2007 Alkatetza Ebazpena).

3.- Miguel Arrospide Jaunari baimenik gabe egindako obrei buruzko expediente santzionatzailearen hasera jakineraztea (87/2007 Alkatetza Ebazpena).

4.- Xabier Bengoetxea Zubitxiki Idustriguneko 14.zenbakian tramitatzen ari den dekorazio estudio espedientearen barruan, abizenaren errorea zuzentzea (88/2007 Alkatetza Ebazpena).

5.- Pedro Nicolas Rodríguez Leria Jaunari ROMEN S.L.-ren izenean Adunako Uparan Idustriguneko 7.zenbakian jantokia ireitzeko obra eta iharduera baimenak ematea (89/2007 Alkatetza Ebazpena).

6.- Ivan Velaz Gonzalez Jaunak Adunako Txantxa Enea bi etxebizitza eta ostalaritzako lokal batean zatitzeko aurkezturiko hirigintz kontsulta onartzea (90/2007 Alkatetza Ebazpena).

7.- Iñaki Aristeta Gurrutxaga Zinegotziari Jose Miguel Carrillo eta Oihana Ayerza Jaun/Andereek burutu nahi duten ezkontza zibila ospatzeko eskuordetza ematea (91/2007 Alkatetza Ebazpena).

8.-Mikel Sarasola Asteasuain Jaunari Lardi auzoan txabola bat egiteko baimena ematea (92/2007 Alkatetza Ebazpena).

9.- Jose Antonio Agirre Arregi Jaunari Lardi auzoko etxearen ondoan daukan garajearen teilatua berritzeko baimena ematea (93/2007 Alkatetza Ebazpena).

10.- Jose Mari Arruti Goenaga Jaunari bi finka banatzeko lizentzia eskaerak jakineraztea (94/2007 Alkatetza Ebapena).

11.- Juan Manuel Cuesta Gallego Jaunari Aldapa Automatismos, S.L-ren izenean Zubitxiki Idustriguneko 8.pabiloian elektrizitate tailerra ihardueraren legalizaziorako establezimendua irekitzeko lizentzia ematea (95/2007 Alkatetza Ebazpena).

#### **HIRUGARREN PUNTUA:**

**1/2007 ZENBAKIA DARAMAN KREDITU ALDAKETA TRANSFERENTZIEN MODALITATEAN ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

Idazkariak 1/2007 zenbakia daraman kreditu transferentzien modalitatean 40.500,00 eurotako kantitatean kreditu aldaketa onartzea proposatzen du eta dagokion espedientearen berri ematen du. Proposamenaren laburpena ondorengoa da:

## KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA

Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako Kreditua
1.0000.601.511.00.03	1.8 unitateko hiritartze proiektua	200.000,00	40.500,00	159.500,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>200.000,00</b>	<b>40.500,00</b>	<b>159.500,00</b>

Gehitutako diren kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1.0000.210.511.00.01	Bide publikoen konponketa eta mantenimentua	2.000,00	1.000,00	3.000,00
1.0000.211.452.00.02	Lokalen konponketa eta mant	2.000,00	1.500,00	3.500,00
1.0000.212.433.00.01	Argien konponketa eta mant	4.200,00	2.000,00	6.200,00
1.0000.220.121.00.02	Prensa, aldizkari, liburu eta	1.000,00	1.000,00	2.000,00
1.0000.221.422.00.01	Argiaren ordainketa: ikastetxea	2.200,00	1.500,00	3.700,00
1.0000.226.121.00.02	Protokolo gastuak	1.000,00	2.000,00	3.000,00
1.0000.226.121.00.03	Publizitate eta propaganda	3.000,00	2.500,00	5.500,00
1.0000.227.442.00.05	Zaintza, gordailuak eta bilteg	0,00	500,00	500,00
1.0000.227.432.00.07	Azterketa eta lan teknikoak	12.000,00	6.000,00	18.000,00
1.0000.481.452.00.01	Irabazizko xederik gabeko erak	4.000,00	2.500,00	6.500,00
1.0000.609.121.00.01	Udaletxearen kargu zenbait obra	30.000,00	10.000,00	40.000,00
1.0000.642.432.00.01	Arau Subsidiarioak	0,00	10.000,00	10.000,00

---

**GUZTIRA**

**61.400,00**

**40.500,00**

**101.900,00**

Kreditu aldaketa hau aztertu ondoren, Udaltzarak, aho batez onartzen du.

**LAUGARREN PUNTUA:**

**HERRIKO LURSAILA SALTZEKO LEHIAKETARA AURKEZTURIKO PROPOSAMENEN ADJUDIKAZIOA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA**

Adunako Udalak 2.007ko abuztuaren 7an egindako Osoko Bilkuran, Adunako Udalaren jabetzako lursail bat esleitzeko lehiaketa ireki bat egitea onartu zuen (G.A.O. 2007-08-22).

Esleipenerako lehiaketa honetan honakoak aurkeztu ziren:

- 1.- Construcciones Aburuza, S.A. (sarrera zk 548)
- 2.- Construcciones Orbero, S.A. (sarrera zk.549).
- 3.- Bixente Otegi Lizaso (sarrera zk 550).
- 4.- Desarrollos Inmobiliarios Basr,S.L. (sarrera zk.551)

Plikan irekitze ekitaldia, 2.007ko irailaren 21ean egin zen, Arantza Aburuza Alkorta alkate anderea Lehendakari gisa, Jose Antonio Irazu Mendizabal zinegotzia eta Maria Etxeberria Urretabizkaia anderea idazkari gisa aritu zirelarik.

Ekitaldi honetara Desarrollos Inmobiliarios Baser, S.L.bertaratu zen.

Ekitaldiko lehendakariak aurkeztutakoen dokumentazioa (A) gutunazala egokitzen jo zuen.

Ondoren, proposamen ekonomikoen plikak ireki ziren:

- 1.- Construcciones Aburuza, S.A: 900.000,00 (zergak barneratu gabe).
- 2.- Construcciones Orbero, S.A: 892.000,00 (zergak barneratu gabe).
- 3.- Bixente Otegi Lizaso: 1.110.000,00 (zergak barneratu gabe).
- 4.- Desarrollos Inmobiliarios Baser, S.L: 941.500,00 (zergak barneratu gabe).

Plikan irekitzea egin eta gero, 2.007ko urriaren 2an Kontratazio Mahaia bildu zen, Alkatea den Arantza Aburuza Alkorta, Udaleko aparejadorea den Javier Santos Solis, Udaleko zinegotzia den Jose Antonio Irazu Mendizabal eta Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea den Maria Etxeberria Urretabizkaia partaidetzarekin eta ondorengo erabakiak hartu zituen:

Eskainitako prezio hoberenari dagokion puntuaketa:

- 1.- Construcciones Aburuza, S.A: 48,7 puntu.
- 2.- Construcciones Orbero, S.A: 48,2 puntu.
- 3.- Bixente Otegi Lizaso: 60 puntu.
- 4.- Desarrollos Inmobiliarios Baser,S.L: 50,9 puntu.

Eskarmentu profesionalari (aurkeztutako dokumentazioaren arabera) dagokion puntuaketa:

- 1.- Construcciones Aburuza, S.A: 0 puntu.
- 2.- Construcciones Orbero, S.A: 3 puntu.
- 3.- Bixente Otegi Lizaso: 0 puntu.
- 4.- Desarrollos Inmobiliarios Baser,S.L: 0 puntu.

Guztira (eskarmentu profesionalari eta proposamen ekonomikoei dagokien guztizko puntuaketa):

- 1.- Construcciones Aburuza, S.A:48,7 puntu.
- 2.- Construcciones Orbero, S.A: 51,2 puntu.
- 3.- Bixente Otegi Lizaso: 60 puntu.
- 4.- Desarrollos Inmobiliarios Baser,S.L: 50,9 puntu.

Beraz, aurkezturiko proposamenak aztertu eta Kontratazio Mahaiaren proposamena kontuan izan ondoren, Udaltzako, aho batez, BIXENTE OTEGI LIZASO-ri adjudikatzea erabaki du milioi bat ehun eta hamar mila eurotan (1.110.000,00 €,) zergak barneratu gabe, baldintza pleguen eta berak aurkezturiko proposamenaren arabera. Eta aldi berean, Alkateari baimena ematen zaio Adunako Udalaren jabetzako lursailaren esleipendun den BIXENTE OTEGI LIZASO-rekin kontratua sinatzeko.

**BOSTGARREN PUNTUA:  
LARDIKO FRONTOIA UDAL INBENTARIOAN SARTZEKO  
PROPOSAMENAREN AZTERKETA.**

Adunako Lardi auzoan dagoen pilotalekuaren jabea Adunako Udala da oso aspaldiko garaietatik. Pilotaleku hori jabari publikoko ondasuna da, erabilera publikoa duena, baina gaurdaino ez da udal ondasunen zerrendan sartu.

Ondasun hori agiri honekin batera doan fitxan deskribatua dago eta Adunako Udalaren ondasunen zerrendan sartu nahi da, beronen jabetzako higiezia baita.

Tokiko Erakundearen Ondasunen Erregelamenduko 17. artikuluan xedatutakoaren arabera, udal korporazioak beren ondasun eta eskubide guztien zerrenda egitera

behartuak daude, ondasun horien izaera edonolakoa delarik ere; beraz, beren jabetzako ondasun guztiak ere zerrendan sartu behar dituzte nahitaez.

Udalek, beren ondasunak bidezko ziurtagiriaren bidez inskriba ditzakete Jabetza Erregistroan. Ziurtagiri horretan, ondasunaren deskripzioa eta eskuratze-titulua adierazi behar dira, Hipoteken Legearen 206. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Adierazitako guztia aintzat harturik,

## **ERABAKI DUT**

1.- Adunako Udalaren ondasunen zerrendan, honako ondasun hau sartzea:

### **LARDI PILOTALEKUA**

- a) **IZENA:** Lardi auzoko pilotalekua.
- b) **IZAERA:** Landa izaerako ondasuna, jabari publikokoa.
- c) **HIRIGINTZA SAILKAPENA:** Adunako Hiri Antolaketako Arauetan jasota dagoen HIB 3.4. alderdian sistema orokorretarako kalifikatutako lursailak dira, bideak eta kirol ekipamenduak ezartzera bideratutako sailak.
- d) **KOKAGUNEA:** Adunako Lardi auzoan kokatua dago.
- e) **MUGAK:** Adunako Lardi auzoko ekialdeko ertzean dago. Frontisa hegoaldera begira dauka eta ezkerreko pareta, berriz, ekialdera begira, hein batean Mariano Agirre Arregi jaunaren etxebizitzarekin bat eginez; iparraldean eta mendebaldean, eraikuntzarik gabeko lursailekin egiten du muga.
- f) **AZALERA:** 108 m<sup>2</sup>-ko azalera du.
- g) **DESKRIPZIOA:** Pilotaleku angeluzuzena da, Adunako Lardi auzoan kokatua. Zorua hormigoizkoa du, eta frontisa aurrefabrikatutako hormigoizko blokeez eraikia; ezkerreko pareta zarpeatua eta pintatua dago. Mendebaldeko alboan, pilotalekuko zoruaren eta ibilgailuen sarbidearen artean, lorategi moduko eremua dago, hiru astigar zuriz hornitua. Kontserbazio egoera kaskarra du, zorua zeharo hondatua dago eta frontisa ere zatitua dauka, hormigoizko zutoin batek eusten dio.
- h) **TITULUA:** Udalarena da oso aspalditik.
- i) **ERREGISTROKO INSKRIPZIOA:** Ez dago erregistroan inskribatua.
- j) **JABARI IZAERA:** Finka hau jabari publikoko ondasun gisa kalifikatua dago, batez ere Lardi auzoko bizilagunek erabiltzen duten kirol ekipamendu txiki bat baita.
- k) **FINKAREN ERAKETA-ESKUBIDEAK:** Ez daude inon jasota.
- l) **ESKURATU ZENEKO DATA:** Udalarena izan da betidanik; beraz, ezin da jakin noiz eskuratu zuen.
- m) **ETEKINAK ETA ERRENTAK:** Ez daude inon jasota.
- n) **LEGEZKO IRIZPENA:** Erabilera publikoari atxikitako ekipamendua denez, legearen ikuspegitik begiraturik beharrezkoa dirudi ondasun hau Jabetza Erregistroan Adunako Udalaren izenean inskribatzea, Hipoteken Legeak 206. artikuluan

aurreikusitako prozedurari jarraituz. Izan ere, artikuluko horren arabera, udal batek ondasun higiezin baten jabaria egiaztatzen duen idatzizko titulurik ez duenean, bere jabetzako ondasun hori administratzeaz arduratzen den funtzionarioak egindako ziurtagiriaz balia daiteke ondasuna inskribatzeko, baldin eta ziurtagiri horrek, ondasuna eskuratu zeneko titulua edota eskuratzeko jarraitutako bidea adierazten badu.

2.- Jabetza Erregistratzaileari, aipatutako ondasuna Jabetza Erregistroan inskriba dezan eskatzea.

**SEIGARREN PUNTUA:**

**2.000KO MAIATZAREN 30EAN EGINDAKO UDALBATZAN ONARTURIKO ZABOR KONTENEDOREEN MANTENIMENTURAKO KONTRATUAREN PROPOSAMENAREN ETETZEA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

Ikusirik 2.000ko maiatzaren 30ean egindako Udaltzaban, MBE Sotkon-ekin zabor kontenedoreen mantenimenturako kontratua sinatzea erabaki zela.

Ikusirik 2.007ko irailaren 1etik aurrera, zabor organikoen bilketa, mantenu eta kudeaketa mankomunitate FCC enpresaren bidez Tolosaldeko Udalerri guztietan ematea erabaki zela bere garaian Tolosaldeko Zabor Mankomunitatean erabaki bezela.

Aipaturiko guztiagatik, Udaltzak, aho batez, MBE Sotkon-ekin 2.000ko maiatzaren 30ean egindako Udaltzaban onarturiko zabor kontenedoreen mantenimenturako kontratua etetzea erabaki du.

**ZAZPIGARREN PUNTUA:**

**ESKOLAKO 21 AGENDARAKO LAGUNTZA TEKNIKOAREN KONTRATAZIOA, BIDEZKOA BADA.**

Adunako Udalak 2004. urtean ekin zion Tokiko Agenda 21 prozesuari eta gaur egun, udalerriko iraunkortasunaren aldeko Tokiko Agenda 21eko ekintza plana onartua dago. Prozesu horretan landu den gaietako bat izan da iraunkortasuna udalerriko gizarte maila guztietan lantzea eta horri lotuta, herriko ikastetxean Eskolako 21 Agenda proiektua martxan jartzea lehentasunezkoztat du Udalak.

Hori dela eta Adunako Udalak Adunako Herri Eskolari gonbitea egin dio 2007/2008 ikasturtean Eskolako 21 Agendan esku hartzeko. Konpromiso hori ikasturte hasieran berretsiko du Udalak ikastetxeko zuzendariak, alkateak, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu saileko sailburuak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza saileko sailburuak sinatuko duten konpromiso-aktaren bidez.

Konpromiso hori izaki, Udalak Eskolako 21 Agenda garatzeko laguntza tekniko kontratatu behar du.

Aipaturiko guztiagatik, Udaltzak, aho batez zera erabaki du:

1.- Eskolako Agenda 21 prozesuan parte hartuko duen herriko ikastetxeari laguntzeko zerbitzu kontratu txikiaren espedientea onartzea.

2.- Aipatu kontratua GALEMYS, S.L. eta INGURUGIRO ZERBITZUAK, ARTELATZ S.KOOP. enpresei 777,59€ko prezioan esleitzea. Adunako Udala eta aipatutako enpresen arteko harremanak euskaraz izango dira eta enpresa hauek bere lana euskaraz aurkeztuko dute; dokumentazio eta txosten guztiak hizkuntza horretan aurkeztuko dira.

3.- Gastua onartzea, aurtengo aurrekontuko 1.0000.211.422.00.01 partidaren kontura.

4.- Ebazpen hau esleipendunari jakinaraztea.

**ZORTZIGARREN PUNTUA:  
ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.**

1.-Kilometroak 2.007ko ekonomi taldearen izenean 2.007ko urriaren 7an Bergaran ospaturiko Kilometroak festarako aurkezturiko dirulaguntza eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, 150 eurotako laguntza ematea erabaki du.

2.- Erniope pilota elkarteak: oraingoz mahai gainean geratzen da.

3.- Rosario Otegi Iturbek 2007ko irailaren 20ean, Ioritz Otegi Iturbe umearen bizi-baldintzak hobetzeko egindako diru eskaera ikusi ondoren, Udalbatzak, aho batez, mila eta zortzirehun euro (1.800,00€) ematea onartzen du.

4.- Mikel Irastorza Jaunak Nazio Eztabaida Guneko koordinatzaile gisa, Nazio Eztabaida sustatzeko aurkezturiko dirulaguntza eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, 300 eurotako laguntza ematea erabaki du.

**BEDERATZIGARREN PUNTUA:  
ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.**

1.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak 2.007ko 3. eta 4.hiruhilabeteko gastuei aurre egiteko aurkezturiko 17.577,14 eurotako idatzia aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, idatzi hau onartzea eta Udalari dagokion 17.577,14 €-tako kuota ordaintzea erabaki du.

2.- Tolosaldeako Mankomunitateak 2.007 ekitaldirako zabor bilketa zerbitzu mankomunatu berria martxan jartzeagatik (iraila-abendua epealdia) aurkezturiko 3.119,93 €-tako faktura aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, faktura onartzea erabaki du.

3.- Gabriel Sarasola Alcaín Jaunak herriko mendietan garbiketa lanak egiteagatik aurkezturiko 3.036,88 eurotako faktura aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, faktura onartzea erabaki du.

**HAMARGARREN PUNTUA:**  
**ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.**

Alkateak azken Plenoa egin zenetik gertatu diren gai interesgarrien eta hartutako erabakien berri ematen du eta Udalbatza jakinaren gainean geratzen da.

Beste Aztergairik gabe, hogeita bi ordu eta berrogei minutu direnean, Batzarra amaitu da, eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.